

**UDAL BATZARRA 4/03**

**UDAL-BATZARRAK 2.003KO APIRILAREN 3AN EGINDAKO OHIKO  
BILKURARI DAGOKION AKTA**

**LEHENDAKARIA:** Jose M<sup>a</sup> Sarasola Goenaga

**ZINEGOTZIAK:**

Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka  
Miren Maite Aizpurua Etxeberria  
Manuel Odriozola Iruretagoiena  
Mikel Errazkin Agirrezabala  
Rafael Uribarren Axpe  
Jose Ignacio Otermin Garmendia  
Mikel Zubillaga Galarraga

**IDAZKARIA:**

Nerea Etxebarria Atutxa

**AZTERGAIAK:**

- 1.-2003ko martxoaren 6ko Osoko Bilkurako aktaren onarpena.
- 2.-Alkatetzako dekretuen berri ematea, 69 zenbaitik 145 zenbakira, biak barne.
- 3.-77. Dekretuaren berrespena.
- 4.-Udalak sinaturiko Hitzarmenen berri ematea.
- 5.-2003 ekitaldirako aurrekontuaren behin betiko onarpena.

## 6.-Galde-Erreguak.

Anoetako Udaetxean, bi mila eta hiruko apirilaren hiruan, arratsaldeko zazpi terdietan, Udal-Batzarra bildu da, Ohiko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Nerea Etxebarria Atutxak, Udal honetan Idazkari Akzidentala bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

### 1.- 2003ko martxoaren 6ko Osoko Bilkurako aktaren onarpena.

*EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak aipaturiko akta ez dutela jaso dokumentazioarekin batera eta ez dutela ezagutzen dio.*

*Idazkari akzidentalak dio akats bat izango zela eta ea besteek jaso duten galdetzen du.*

*Eurek ere ez dutela jaso erantzuten du ASA taldeko Mikel Errazkin zinegotziak.*

*Alkate jaunak hurrengo Udalbatzarrean onartzeko uztea proposatu du*

**Erabakia:** Udalbatzarrerera bertaratutakoek, ahobatez, 2003ko martxoaren 6ko Osoko Bilkurako akta ospatzen den hurrengo Osoko Bilkuran onartzeko uztea erabaki dute.

### 2.-Alkatetzako dekretuen berri ematea, 69 zenbakitik 145 zenbakira, biak barne.

Alkateak emandako ebazpenen berri ematen du, horiek 69tik 145era bitartekoak izanik, biak barne.

*EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak 76. Zenbakia duen dekretua ikusi ondoren, esaten du Biyak –Bat etxeko jabeek helegitea jarri dutela, kontentziosoa eta ea zer egin den.*

*Jose Maria Sarasola alkate jaunak erantzuten dio lehenago ere aipatu izan denez, Udala eta Jubinen artean Hitzarmen bat egin zela, gaurko Plenora berri emateko dakarrena hain zuzen ere, horrelako auzi bat plantetatu ezker, Udalak aurre egiteko fidantza bat jarri zuelarik Jubinek. Titulartasun gatazka dagoen lursailaren balorazioa egin zela eta horren araberrako diru kopurua aurrerratu zuela Jubinek, balorazioa goitik jota egiteko esan zitzaizolarik teknikoari.*

*Jose Ignacio Otermin jaunak 82. Zenbakia duen dekretuari aipamena egiten dio, Adela Cacho Sanguino andreak jarritako errekursoari buruzkoa, eta hau zeri buruzkoa den galdetzen du.*

*Alkateak azaltzen dio Errotaldean eroritako emakume baten erreklamazioaren ondoriozko helegitea dela. Emakume honek espaloia egoera txarrean zegoela alegatzen zuela azaltzen du. Espedientea Erantzunkizun Zibileko Asegurua eramten digun aseguru etxera bidalita dagoela dio eta euren erantzunaren zain gaudela.*

*ASA taldeko zinegotzia den Pedro Maria Peñagarikano Labaka jaunak dio badela bera pixka bat kezkatzen duen puntu bat, hau da, gaur egun kalean erori ezker edozein kasutan, Udaletxea erruduntzat hartzen dela eta erreklamazioa egiten zaiola eta hau ohitura bihurtzen ari den heinean arriskutsua iruditzen zaiola.*

*Jose Ignacio Otermin jaunak 84. zenbakia duen dekretuari buruz galdetzen du. Esaten du hemen ukatu egiten zaiola pertsoona bati igogailua jartzeagatik bonifikazioa, ordenantza indarrean sartu aurretiko obra delako baina berak uste duela aipatu zela aurretik jarritakoei ere dirulaguntza emango zitzaizela, bonifikazio bezala ez zeaen ere beste bide batetik.*

*Alkateak erantzuten dio baietz, hori egingo zela aipatu zela baina horretarako subentzio horiek ematea eta emateko irizpideak Osoko Bilkuran onartu behar dirala eta oraindik ez dutela horri buruzko ezer onartu. Esaten du, dena den, pertsona honi dekretu hau jakinarazi bazaio ere, hitz egin dela berarekin telefonoz eta azaldu zaiola zergatik ukatzen zaion hau eta nola Udalak subentzio batzuk onartzeko asmoa duen.*

*Jose Ignacio Otermin jaunak 106. dekretuari buruz aipatzen du honen bidez Raimundo Mendiburu arkitektuaren faktura batzuen ordainketak egiteko agindua ematen dela. Ikusita zein kopuru ordaindu behar zaizkion eta urtean zehar zenbat txosten eta aholkularitza lan egiten dituen, askotan aipatu den bezala agian merezi duela arkitektua kontratatzea udal langile bezala asteen egun batzuk*

*Alkateak erantzuten dio hori komentatzen egon dirala eta eurek ere beharrezko ikusten dutela, hamabost egunetik behin ez bada ere, arkitektua Udaletxean egotea eta harreman kontraktuala izatea Udalarekin.*

*Pedro Maria Peñagarikano jaunak ere esaten dio hori askotan hitzegin dutela eta alkateak esan bezala pentsatuta dutela egun bat edo behar diranak Udaletxean egon beharko litzatekeela eta gainera Obra eta Zerbitzuetako Batzordea egiten den egunarekin kointziditzen duela.*

*EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Rafael Uribarren jaunak dio gainera ez bakarrik txostenmak egiteko baizik eta herri bezala etorkizunari begira proiektatzeko ere.*

*Jose Ignacio Otermin jaunak dio bere ustez beharrezkoa dela zeren nahiz eta herri txikia izan, hirigintza aldetik gero eta gauza gehiago eta konplikatuagoak egiten dirala*

*Jose Ignacio Otermin jaunak 121. Dekretuaren gainean honako aipamena egiten du: dekretuak jartzen duela ingurumen batzordeak onartu zuela Galarragak igoerarekin pasatutako faktura, baina bere ustez batzordean esan zena justifikatzeko eskatuko zitzaioela zela, nahiz eta azken finean asmoa onartzea izan. Baina formak mantentzeko ez bada ere, justifikatzeko eskatu geniola uste duela.*

*ASA taldeko zinegotzia den Manu Odriozola jaunak baietz baietz erantzuten dio, horrela erabaki zela.*

*Jose Ignacio Otermin jaunak 130. Dekretuari buruz zera dio: Babes Ofizialeko Ertxebizitzaren proiektuaren esleipenerako Kontratazio Mahairako ez zutela izendatu eurentako inor. Berak Jubilatuen Egoitzaren obraren esleipenerako Kontratazio Mahairako izendatu zutenean kale egin zuela, ezin izan zuelako etorri, baina euren asmoa herrirako hain garrantsuak diren horrelako proiektuetan presente egotea dela eta gustatuko litzaiekela Kontratazio Mahaietan izatea.*

*Alkateak proiektuaren esleipenerako dekretuaren azalpena egiten du eta aurkezturikoak zeintzuk izan ziren eta zein proposamen egin zituzten azaltzen du.*

*Jose Ignacio Otermin junak dio, komentario gisa, aipatu nahi duela Raimundo Mendiburu izan dela prezio murrizketa txikiena egin duena eta hori, Udaletxeko lanak berak egiten dituela kontuan hartuta, detaile itsusia iruditzen zaiola.*

Horrenbestez, Udalbatza Dekretuen jakitun geratzen da.

### **3.-77. Dekretuaren berrespena.**

Alkateak dekretuaren azalpena egin du eta esaten du gaur berrestera ekarri duela Osoko Bilkurara.

*EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Rafael Uribarren janak dio berak gauza bat aipatu nahi duela: "proyecto básico"-ri buruz hitzegiten ari diranez berak ez dakiela dakiela hori errekurrizterik dagoen zeren hori egiteko ez dela lurretan sartu beharrik ezta inolako baimenaren beharrik. Aipatzen du GIF-ek hau atera duela Eusko Jaurlaritzak berea atera duenean.*

*ASA taldeko zinegotzia den Manu Odriozolak erantzuten dio helegitea aurkeztearen helburu bakarra, aurreko ekintzen ildotik jarrai asmoz, aurkako jarrera agertzea dela, ez dagoela beste helbururik.*

#### **Erabakia:**

Dekretua bozketara eraman da eta hurrengo emaitzak izan dira:

Alde 5 (ASA taldeko zinegotziak)

Aurka:0

Abstentzioak:3(EAJ-PNV/EA taldeko zinegotziak)

Dekretua berretsia geratu da Udalbatzarrerara bertaratutakoan gehiengoz.

### **4.-Udalak sinaturiko Hitzarmenen berri ematea.**

Alkateak azken hilabeteetan sinaturiko hiru hitzarmenen berri ematen du: A-1 eremuari buruz ARRIDON S.L.-rekin sinaturikoa, A-11 eremuari buruz PROMOVISA 2000 S.L.-rekin sinaturikoa eta ZELAI-rekin sinaturikoa.

*EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ZELAI-rekin sinaturiko hitzarmenari buruz akats bakarra ikusten duela dio, bukaera beraien esku gelditzen del, zeren esaten dela Udalak “ineludibles necesidades” egotekotan eskurartu ahal izango duela terrenoa baina gero ez da ondo lotu hori, euren eskuetan gelditzen da eta eure ustez horri eranskin bat gehitu beharko litzaioke hitzarmenari hobeto lotzeko puntu hori*

*EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Rafael Uribarren jaunak dio gainera fidantza edop abal hori 20 urtetan izateak ere zentsu handirik ez duela. Bere ustez hori gehiago lotu beharko litzateke, urbanizazioa egitearena lotu eta zein kasutan bueltatuko den.*

*ASA taldeko zinegotzia den Pedro Maria Peñagarikano jaunak dio hauekin hitzegin ezkerero ez dela inolako arazorik izango, irekiak daudelako edozein proposamenetarako zeren akordio hau lortzea ere oso erreza izan dela.*

Udalbatza Hitzarmenen jakitun geratzen da.

#### **5.-2003 ekitaldirako aurrekontuaren behin betiko onspena.**

Ikusirik 2003. Ekitaldirako Aurrekontu Orokorrari aurkezturiko aldaketa teknikoak eta alegazio teknikoak.

Kontuan harturik Ogasun Batzordearen diktamina

#### **Erabakia:**

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute

**Lehenik**: Aurkezturiko alegazio eta aldaketa teknikoak onartuz 2003.ekitaldirako Aurrekontu Orokorrari behin betiko onarpena ematea, bere kapituluz kapituluko laburpena honela geratzen delarik:

### SARRERAK/INGRESOS

<u>KAP./CAP.</u>	<u>IZENA/TITULO</u>	<u>EUROAK/EUROS</u>
I	Zuzeneko zergak/Impuestos directos	234.197,-
II	Zeharkako zergak/impuestos indirectos	140.203,-
III	Tasak eta bestelako sarrerak/tasa y otros ingresos	634.226,-
IV	Transferentzia arruntak/transferencias corrientes	781.712,-
V	Ondare sarrerak/ingresos patrimoniales	23.287,-
VI	Inbertsio errealen besterentzea./Enajenacion inversiones reales	1.323.200,-
VII	Kapital transferentziak/transferencias de capital	408.688,-
IX	Finantza pasiboak/pasivos financieros	1.054.566,14,-
<b>GUZTIRA</b>	<b>DIRU SARREREN</b>	<b>4.600.079,14,-</b>
<b>AURREKONTUA/TOTAL</b>	<b>PRESUPUESTO</b>	
<b>DE INGRESOS</b>		

## GASTUAK/GASTOS

<u>KAP./CAP.</u>	<u>IZENA/NOMBRE</u>	<u>EUROAK/EUROS</u>
I	Pertsonal gastuak/Gastos personal	577.598,14,-
II	Ondasun arrunt eta zerb. Gastuak/Bienes corrientes y servicios	513.745,-
III	Finantza gastuak/gastos financieros	30.000,-
IV	Transferentzia arruntak/transferencias corrientes	398.200,-
VI	Inbertsio errealak/inversiones reales	3.000.700,-
VIII	Finantza aktiboak/activos financieros	19.836,-
IX	Finantza pasiboak/pasivos financieros	60.000,-
<b>GUZTIRA.GASTUEN</b>		4.600.079,14,-
<b>AURREKONTUA/TOTAL PRESUPUESTO</b>		
<b>DE GASTOS</b>		

**Bigarrenik:** Toki Ogasuna arautzen duen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 150.3 eta 150.4 artikulua bete asmoz, behin betiko Aurrekontu Orokorra Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta kopia bana bidaltzea Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko dagozkien Sailerara.

### **6.-Galde-Erreguak**

Jose Maria Sarasola alkate jaunak zinegotzi guztiak gonbidatu ditu apirilaren 9an goizeko 10:00 etan egingo den Kiroldegiko obrarako aurkezturiko proposamenen irekitzera.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko bederatziaik hogeita bost gutxiago direnean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede enaten dudalarik.

O.E

ALKATEA

IDAZKARIA